

GERNIKA-LUMO

TAO gunea barria ipiniko dabe irailaren 1etik aurrera

TAO gunea uriko beste kale batzuetara zabalduko dau Gernikako-Lumoko Udalak. Erdiguneaz ganera, ondoko beste zortzi kale gehiagoan kontrolauko dabe aparkatzeko denporea. Honexek dira aparkalekuen ganeko neurria eukiko daben kaleak: Iparragirre kaletik Miguel de Unamuno bidegurutzeraino doan kalea, Saraspe plazea, Pedro Elejalde, Iñigo Lopez de Haro, Txorroburu eta On Tello, besteak beste.

5

LEKEITIO

2003ko Ibilaldia 'Dzanga geurera' lelopean ospatuko dabe

Bizkaiko Ikastolen Federazi-noko jaia, Ibilaldia, Lekeitio izango da, datorren urtean. Hori dala eta, ordura begira beharrean hasi dira. Logotipoa eta leloa aukeratu eta jentearrean erakutsi ditue. Holan, *Dzanga geurera* leloa asmau dabe Lekeitio eta Ondarroako ikastolek, ibilaldia ospatzeko. 1983an be Lekeitio egin eben Ibilaldia. Halandaze, hirugarren aldia da hau, Lea Artibaiko eskualdeak Ibilaldia hartuko dauena.

6

DURANGO

Udalean euskerearen erabilerea bultzatuko dabe

Euskerearen erabilera plan-gintzea abiatu guran lehenengo pausua emon dabe Durangon. Izan be, bideragarritasun txostena onartu dabe. Euskerea beharrerako hizkuntzea bihurtu gura dabe, euskera planagaz. Horregaitik egin dabe bideragarritasun txostenea. Horixe esan dau Jose Antonio Atutxa euskera teknikariak.

7

BILBO. Aste Nagusia

Bi milioi eurotik gorako aurrekontua eukiko dau Marijaiak Aste Nagusirako

Konpartsen Koordinadoreak eta Bilboko Udalak ia zehaztuta daukie Aste Nagusirako jai egitaraua eta zenbateko aurrekontua izango dauen Marijaiak poltsikoan, jaietan gastetako. *Bizkaia*-k jakin ahal izan dauenez, 2.067.841 euro gorde ditu Udalak abuztuko jaietarako; hau da, sasoi bateko 344 milioi pezeta. Azpimarratzekoa da, bestalde, Bryan Adams abeslari kanadarra ez dala etorriko azkenean Bilbora, beste

Fermin Muguruza ekarri gura dabe kontzertu nagusirako

konpromiso batzuk daukazelako. Haren lekua beteteko, Jai Batzordea hartu-emonetan dabil Fermin Mugurazagaz eta honen talde Dub Music Manifestegaz. Ganera, aztertzen dabilen beste kontu bat da non egin kontzertu hori. Bestelako kontzertu handiak Gas plazan egingo ditue, orain arte lez. Halandabe, baleike Fermin Muguruzak Miraflores inguruan eskaintzea bere kontzertua, jente asko joatea aurreikusi dabelako.

2-3

PORTUGALETE. Itsas prozesinoa



JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

Arrantzaleen Ama Birjinea atera dabe

La Guiako Amar Birjinearen omenez, itsas prozesinoa egin eben atzo, Portugaleten. Herriitik itsasoraino eroan eben. Behin han, ohorezko aureskua dantzatu eutsien amabirjineari, eta ostean, lora eskaintzea egin eutsien. Ama birjina honek, ganera, 1925. urtean egindako trainera dauka haren omenez. La Guiako Ama

Birjinearen ospakizuna, halandabe, egun osokoa izan zan. Goizean goiz, haren omenez mezea gertau eben eta ondoren, buruhandiekin eta txistulariekin herriitik zehar ibili zan kalejirea egin eben. Umeendako kontuak be egon ziran. AEK-k gertauta, Kutxo eta Jai pailazoez emonaldia eskaini eutsien gaztetxoiei.